

Baionako Hiriak tokiko monetarekin ordainketak egitea :

Berrikuntzari bai!

2017ko uztailaren 19an aho batez bozkatu delibero baten bidez, Baionako Herriko Etxea Euskal Monetarekin hitzarmena izenpetu du eta, hautetsien gastuak, zein elkarteei eta enpresei zuzenduriko gastuak euskoz ordaintzeko engaiamendua hartu du, beraiekin adostuz gero.

Egungo araudiak lurralde elkargoei ordainketak tokiko monetekin egitea berez baimentzen du. Izan ere:

- 2012ko azaroaren 7ko dekretuak Kode monetario eta finantziarioan agertzen diren ordainbide mota guztiak erabiltzeko baimena ematen die tokiko elkargoei.
- Eta 2014ko uztailaren 31an bozkatua izan den Ekonomia soziala eta Solidarioaren legearen 16.artikuluak tokiko moneta osagarriak Kode Monetario eta finantziarioaren barnean sartzen ditu, 311-5 eta 311-6 artikuluen bidez.

Pirineo Atlantikoko Prefeta, alta, zaharkiturik dagoen 2012ko abenduaren 24ko erabaki batean oinarrituz, hartua izan den deliberoaren aurka altxatu da, Paueko auzitegi administratiboan, 2018ko urtarrilaren 13an iragan beharra zuen auzialdia izan aurretik auzigabetze batekin bukatu den lehenengo berehalako errekurtoa jarritz.

Pirineo Atlantikoko Max Brisson Senatariak joan den otsailaren 13an pausatutako galderarekin galdatua izan ondoren, gobernuak justifikaziorik gabeko mesfidantzaz beteriko erantzun bat eman zuen eta, trenkatzea justizia administratiboaren esku uzteko nahia jakinarazi du.

Baionako Herriko Etxea eta Euskal Monetaren arteko hitzarmenak legalitatea eta kondularitza publikoan indarrean diren egungo prozeduren errespetuan ekarri beharreko berme guztiak ematen ditu. Baionako hiriak kontaktatu dituen eskubide publikoan aditutako goren mailako juristen analisiak berresten dutena, izan ere.

Erronka handia da, tokiko moneta bat gastuak ordaintzeko erabiliz elkargo batentzat palanka berritzailea eta esanguratsu bat baita lurraldean ekoiztua den aberastasunaren zati handiagoa birkokatzeko, eta zirkuitu laburrak bultzatzeko.

Dei honen izenpetzaileek berrikuntza nahi hori erraztea eskatzen diote gobernuari, beraz. Lurralde elkargoen deszentralizazio eta kudeaketa askearen printzipioak gailendu behar dute horrela nahi duten elkargoei, beharrezkoak diren garantia guztiak ematen dituzten beraien tokiko monetak erabiltzen uzteko, lurraldeko garapena dinamizatzeko eta trantsizio ekologikoa eta solidarioa bizkortzeko helburuarekin.

Gobernuak, egokia iruditzen bazaio, Aurrekontuaren Ministroari eskatzen ahalko dio 2012ko abenduaren 24ko erabakia osatzea, 2014ko uztailaren 31an ESSaren legearen bozkarekin inplizitoki egindako integrazioaren ondotik, elkargoei baliatu ditzazketen ordainbideen zerrendan argi eta garbi integratzeko.

Lehen izenpetzaileak:

Jean-René Etchegaray, Baionako auzapeza, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaria
Lucien Betbeder, Biltzarreko lehendakaria eta Lekorneko Auzapeza
Kotte Ecenarro, Hendaiaiko auzapeza, departamenduko kontseilaria
Bruno Carrère, Uztaritzeko auzapeza
François Dagorret, Bastidako auzapeza
Vincent Bru, Pirineo Atlantikoko 6. bozka-eremuko deputatua
Max Brisson, senataria
Frédérique Espagnac, senataria
Mathieu Bergé, Eskualdeko kontseilaria portuak, aireportuak, Euroeskualdea eta mugazgaineko kooperaziorako arduraduna
Sandrine Derville, Akitania Berria Eskualdeko lehendakari ordea, Turismoaren arduraduna
Emilie Dutoya, Eskualdeko Kontseilaria
Alice Leiciaguecahar, Eskualdeko Kontseilaria, Laborantza komisioko lehendakaria
André Sainte-Marie, Eskualdeko kontseilaria, Mendia eta artzain munduaren arduraduna
Michel Veunac, Eskualdeko kontseilaria, Miarritzeko auzapeza, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari ordea
erakargarritasun turistikoaz eta ekonomia urdinaz arduradun